

Lekuko xarmanta

Inge Morathen argazki kuttunak betiko izanen dira gurean


Ez da berriro biziki maite zituen sanferminetara itzuliko. Ilbel-tzaren azkeneko egunean zendu zen Inge Morath argazkilaria New Yorken, 79 urte zituela. Bere irudi kuttunak, alta, gure oroimenean egonen dira betiko. Bereziki, 1999. urteko ekainean Iruñeko Udalak erosi zion bildumaren irudiak, 1954. urteko sanferminetan egindako argazkien bilduma, hain zuzen ere. *Orain bere etxera itzuli dira argazkiak, Iruñera, bere sorlekura, direneko hirira*, erran zuen memento horretan, pozik, Ingek.

Oso gustuko zituen sanferminak Ingek. *Jai biribilak dira. Amets egiten dut noiz itzuliko naizen mementoarekin. Eromen ederra dira*, erran zuen. Eta ametsa egia bihurtuz, sarritan bueltatu zen Iruñera.

Harreman estua Iruñearekin

Gure hiriarekin izan zuen harreman estua eta emankorra 1954. urtean hasi zen. Aurretik, Ernest Hemingwayren *Fiesta* (*Jaia*) liburua irakurria zuen Ingek. Urte hartan, Robert Del-pire editorearekin eta Dominique Aubier idazlearekin etorri zen Iruñera, sanferminetako liburu bat egiteko xedearekin. 1955. urtean argitaratu zen liburu hura, *Guerre q la tristesse* (*Tristurari Gerra*), Frantzian. Liburua zentsuratu egin zuten gurean, eta, duela hiru urte, 1999. urtean, Ingeren lagun-mina zen Lola Garridok argitaratu zuen.

Bertan, bere irudi ederraz gain, testu txiki bat idatzi zuen argazkilariak. *Sanferminetako*



Inge Morath, 1997. urtean.

azken eguna da. Euria ari du. Pozik nago euria egiten duelako; horrela errazagoa suertatuko zait hemendik aldegitia

Mende honetan zehar gure jaiek izan dituzten aldaketen

lekuko dira Ingeren argazkiak. *Nik denbora behar dut aldaketak sumatzeko eta aldaketa horiek irudi bilakatu ahal izateko. Bere irudiek mundu txikia osatzen zuten bere baitan, eta bertan*

bera islatzen zen. *Bi begiekin ateratzen ditut argazkiak. Bata irekita izaten dut errealtatea ikusteko; eta bertzea itxita, nire barne munduari so. Ildo horretan, bere irudietan sarritan*

geure buruari egin izan dizkion galderen erantzunak aurki daitezke.

Irudi onak gutxien pentsatzen duzun mementoan sortzen dira. Hala ere, prestutasuna izan behar duzu. Begiaren eta buruaren arteko nahasketa egokia behar da argazki on baten aurrean zaude-la jakiteko. Bere hitzak berriro ere. Nire uste apalean, interesgarriena argazkilari aunitzek memento jakin batean jaso nahi dutenaz kanpo dago.

1954. urteko sanferminetan egindako argazkia.



LA VIÑA
Bar-restaurant
PENSION

Menuak
Bokatak
Martxa hoberena

Jarauta kalea, 8-10
Tel.: 948 22 14 99
31001 IRUÑEA



JARAUTA - IRUÑEA



NABARRERIA, 15
IRUÑEA

BERRIOZAR
HARATEGIA




Zezen haragia

Artakale, 14

© 948 30 18 10

31300 BERRIOZAR



LA CAMPANA

● Ogitartekoak eta Giro ona

Kanpana kalea, 12

948 220 008 - IRUÑEA

KATATXU
TABERNA



Indartxikia 16
© 948-226028

«Sarasate pasealekua»

Gaztelu plaza

Indartxikia

Eliza

Katatxu

San Nikolas plaza

~ SVA ~
BAR



c/ CALDERERIA 7 IRUÑEA